

## LARROSA IHINTZA

Javier Muñoz

*Bilbao. 17 urte*

Beti ere, goizalbako larrosen ihintzak maitasun trunkatuaren patua gogorarazten zion, eta huraxe pentsatu zuen Zaramora arribatu zen une berean. Halabeharrez, dei batek herriskara zuzendu zuen Jose Maria Loinaz. Behiala artzaina eta egun bere kartetako areriorik estimagarrienak, oroimen traidorearen etengabeko buruhausteetik salbu jartzea erabaki zuen.

Urteak joan ahala, Jose Antonio Munoa medikuarentzat bere lagunaren akaberak garrantzia galdu zuen. Alabaina, etxeraino zituen sei eskailek presaka igo zituen. Hilotza mahai gainean aurkitu zuen. Gorputzera aurreratu ahala, oinetako basituek zoruaren kontra txist-txist bat sortarazten zuten. Hurbil antzean, edena edateko erabili zuen kikara zegoen. Loinazen amaiera espero zezakeen, modu horretakoa ez, ordea. Urteak zirela, herrira jaisten zen guztietan kartetara jokatzen zuten; jokatu baino borroka amaitezin bati ekiten zioten. Eta hala, aurreko arratsean gauza bera egin zuen. Beraz, erreza zen gau hartan hil zela somatzea.

Bestelakoetan gorputza zeharo aztertuko zukeen, gelditasun osoz. Aitzitik, begiratu baino ez

zion egin. Oker eta zurrun zegoen begitarte zabalak ematen zuen bere mingostasunaren berri. Esku erkitu eta matxuratuek naipeak sostengatzen zituzten, beste jokaldi baten grina izango balute moduan. Egoera hura prestatua zuela pentsatuko zukeen, sekula apaltasun bereko izakirik ezagutu izan ez balu.

Ez zegoen egitekorik, alabaina, bertan zirauen oroitzapenen gatibu.

Jose Antonio Munoaren bizitzak ez zuen gora-behera haundirik aurkezten, eta hala, erraz zerraion rutinak, monotoniara kondenatu zuen. Eguzkiaren aurreneko errainuekin esnatzen zen, eta ordutik, bakanetan berrirakurri zituen liburu orrialdeak xalotasunez urratzen zituen; nahiz eta begi lausotuez, hitzen jitea argitzen saiatzeko oroimenaz baliatu. Tarteka eta izkutuka zerbait edan ostean, bizar txuria konpondu eta garbitzen zuen.

Halaber, medikuntzako betekizunak bete-betean jarraitzen zituen eta inguruan zeuden bere aldartekoei adinaren zama zimardika ez zezakeen esperantza dosifikatuak eskaintzen zizkien. Haatik, heldutasunean, maiz esperientziaz beteriko hizketamodu harilkatuetan iradokitzen zen.

Hirurogeita hemeretzi urterekin, lehen aldiz ikusi zutenek, aurreneko gaztetasuna gordetzen zuela esan ohi zuten. Lanetik at ez zuten sekula nehorrekin ikusten, Loinazekin salbu. Bazkaloste-

ko lo kuluskari jarraituz, ahal zuen guztietan berarekin batera kartetara aritzen zen.

Ez zuen lan hura utzi nahi. Halare, bazekien azken irtenbide edota lagun egiteko gisa baino ez zutela berarengana jotzen. Begien mingostasuna ikustearekin soilik, gaixotasun bat bestetik ezberdintzeko gai zen, baina modu batean edo bestean, bertan ez zegoen bizitzaz asko axolatzen zen eta egoerak hamaika abereren gaitzez arduratzera bultzatu zuen. Halare, berdin zitzaion eta hura medikuntzaren zertarakoen gehikuntza bat izanen zela sinestarazten zuen.

Igandeak zituen ezberdin, biztanle oro elizara hurbiltzen zenetan, berak etxeko trepetak ordenatzen zituen, senaren gogoeta ahantziak nozitzuz. Horrelakoetan ez zuen inork egun osoan ikusten. Alabaina, abadea hil zenetik ez zegoen haren ordezkorik eta sarritan mezak larunbatetan ospatzen ziren, noizbehinka Zaramora hurbiltzen zen abade ezezagun baten eskutik. Eta halako goizna-barrean, gazte batek atea brost-brost kolpatuz, ez bairik gabe Jose Antonio Munoareen setiaketari amaia ekarri zion. Ez zuen ezer estrainekotzat hartu, ordea, eta espero zezakeen zalaparta izango balitz moduan zabaldu zuen ateko morroila.

Aurrean sekula ikusi gabeko antzaz, auzokide nerabe batek eman zion gertatukoaren berri: «Jose Maria Loinaz...» izenak aurretik itxaroten zue-na egiaztatu zuen. Masaila, dardaraz adierazitako

ele ortotsen ahoa, medikuaren zain zegoen, eta segundu gutxiren ostean, aurreneko itxura lasai hura, oraingoan, larritasunak atezuan zuen.

Presak, beharrezkotzat jotzen zituen elementu oroz ahanztera bultzatu bazuen ere, ez zirudien haien beharra izango zuenik. Eta gaztearen pausak jarraituz herrira jaitsi zen.

Kanpaiek sortutako auzuneko zakurren zaunka eta intziriek adierazi zioten elizkizunen ailegera. Oraindik atxekerik mantentzen zuen larrosen ihintzen usaimena, beti maitasun trunkatuarekin harilkatzen zuena.

Behiala, herrira arribatu eta urte batzuen ostean, eta medikuntzaren sendabideak onartu zirenean, Munoa doktorea bere aurreneko heriotzarekin aurkitu zen, eta honi Loinazena jarraitu zitzaion. Igande arratsalde batean, tabernan bertakoekin hizketan zegoela, Aurora Bolivarrek bere egonaldia eten eta, inolako diosalarik egin gabe, oraingoan bere aita lagun zezan eskatu zion. Larderia adierazten zuen bere azaleko leuntasun orok, eta hala, izua lagun, elkarrekin aldendu ziren. Aurorarekin berriz ere topatuko zelakoan zegoen, nahiz eta sekula ez modu horretan. Presaka, urrats bakoitza zein baino zein arinago zihoan, pittika etxeko estratara heldu ziren arte. Menturaz, ahiturik, lipar batez gelditu egin zen. Jose Antonio Munoa ez zuen hura maitasunerako tenore gisa ulertu eta, halaber, hunkipen kon-

tsolamenduak ez zituen laket. Hortaz, «lasai» dosifikatu bat erran eta patuak zuzenduriko halabeharra saihestu nahian, aurrera egin zuen. Aurora Bolivarrek, berriz, kanpoan zirauen larrosen ondoan.

Etxeko iluntasuna haztamuka igarriz, logelara ailegatzea lortu zuen. Bertan ohandzean, lehen aldiz, zahartxoaren usaina somatu zuen, inoiz sendatu ezinen zuen bizitzaren akabera. Ordutik, gutxiagokoa izan zen bere beharra. Aurora Bolivarrek amaren mingostasun oihua entzutean, aitaren heriotza igarriz, korrika ahal izan zuen moduan zen igo gelara. Haatik, bihotza lehertu egin zitzaion aurpergi zurbileko begitarte zurrinak heriotza egiaztatu zionean.

Hura izan zen Aurora Bolivar ikusi zuen azkenego aldia. Alabina, ezinezkoa zen adierazitako maitasunen ahanztea. Oraindik, oroimenera atxekirik zuen bere fereka lausotuen irudia; baina guzti hura ezin zitekeen sekula errepikatu. Aurora zakurren zaunka eta ahausietan baino ez zen bizi, noizbehinka bihotzari oinazea gogoraraziz.

Euriak lausotzen zuen etxetto grisean zegoen bere arerioaren balbea.

Artzain ibilia haur zenetik eta ohitura denbora anitzean ia nehor ikusi gabe bizia, Jose Maria Loiaz urte gutxi zirela ailegatu zen bizitzera Zamora. Zaila zitzaion bere ohizko ez zen giro estrainekora egokitzea. Hala ere, apurka gela huts

eta haundi hura etxe bilakatu zuen; herriko jendearen jitea ez, ordea. Arrotz aurkitzen zen hainbeste pertsonen artean eta, hala, bakarrik iraun zuen.

Antza, adinaren zamak ezezik emaztegaiaren heriotzak ekarri zuen herrira.

Urteak ziren doktoreak artzain izanaren antzerako bakardadean zirauela. Gai profesionalak salbu, ez zuen beste ezerk setiaketa pertsonaletik aldentzen. Zaharrek ziotenez, maitasun trunkatu bat zen horren eragile.

Lurrean, mahaipen etzanda, etengabe arnaska ari zen txakur eskerga zegoen eta bere alboan lurra estaltzen zuten kikara zatiak, sorura jauzterakoan apurtutakoak.

Goiza gainean, argia jabetzen hasita zegoen jandak gelako gauzetaz, mahai, aulki...

Atea zabalik, etxera zuzenean sartu ziren. Aurretik, gorpua lehenengoz ikusi zuena, dudatzeke, lasterka Munoa doktorea abisatu baitzuen. Berririari hasierako zurruntasun eta lasaitasunarekin erantzun bazion ere, egoera prestatutakoa zuen hura. Argi zeukan egunen batean gertatuko zela eta larritu ezezik harritu zuena, deitu zutenen artean lehenengoa izatea izan zen. Handik lasterra urduritu zen.

Gela itogarri hartan zirrikitu oro, mitrarik bako edozein leihoren modura zapiz estalirik zegoen. Ezaguna zitzaion usaimenaren dentsitatea zeharo

trinkoa. Jarraian Jose Antonio Munoak petatean zegoen maindirea oratu eta hilotza estali egin zuen.

Ezaguna zitzaion etxea, bertan jokutzen zituzten joko amaitezinak zirela eta. Haatik ez zuen sekula erreperatu Jose Maria Loinazek zeukan Aurora Bolivarren argazkian. Gogoratu zuen maitasuna eta baita pairamena ere. Ezin zuen gogoa ekiditu eta beti ere, goizalbako larrosen ihintzak maitasun trunkatuaren patua gogorarazi zion.